# DEBABARRENEko IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA-PLANA
# **2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK**

Debegesa
DEBABARRENA

***Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua***

*Laguntza teknikoa:* ***ELKARREKIN 21***

TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA

Elkarrekin21

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ORAIN GIPUZKOA

# Tokiko Agenda 21




1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.

**24 urte beranduago,** esanguratsua da **Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.**

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:

**Aduna, Alkiza, Amezketa, Andoain, Arama, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena** (eskualdeko ekintza-plana), **Donostia, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama y Zumarraga.**

# Nolakoa da **gure eskualdeko ekintza-plana**?

**9**
**Helburu estrategiko**

**120**
**Ekintza**

**8**
**Udal-eragile ezartze-lanetan**

## Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **txikiagoa** da. Hala eta guztiz ere, Debabarrenekoa eskualde mailako plana izanik, lurraldeko batezbestekoak gehienbat udalerri mailako izaera duten ekintza-planak aintzat hartuz kalkulatzen direla. Ekintzen garapenean **inplikatuta dauden eragile-kopurua ere** lurraldeko batez bestekoa baino **baxuagoa** da.



# Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

%32 ezarri da bere 3. urtean

%6ko hazkundea 2014 -2015 epealdian

## Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila desiragarria den **helburuko balioa baina baxuagoa da.**

Bestalde, Ekintza-planaren indarraldiko 3. urtean lortutako garapen-maila **lurraldeko batez bestekoaren azpitik kokatzen da, zertxobait.**



# Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?

Planaren 3. urtean (2015 urtearen amaieran, hain zuzen) ekintzen %60a hasteko edo hasita aurkitzen zen.

2014-2015 denbora tartean %10 batean hazi zen aurreratuta, amaitzen edo amaituta zeuden Debabarreneko iraunkortasunerako II. Ekintza-planaren ekintza-kopurua.



## 2015ean amaitutako edo amaitzear zeuden ekintza adierazgarri batzuk:

1.2.1 Birgaitze -lan jasangarriak egitera zuzendutako tresnak sustatzea

2.4.2 Espezie inbaditzaileak ezabatu eta kontrolatzeko jarduerekin aurrera egitea

3.3.2 Emugi proiektua eskualdeko gainerako herrietara zabaltzeko aukerak aztertzea

6.3.3. Debabarreneko ETEei informazio- eta sostengu-zerbitzu integrala eskaintzea

7.2.2 Euskal Kostaldeko Geoparkearen proiektuaren bidez Debabarreneko baliabide geologiko eta geomorfologiko berezien garrantzia azpimarratzen jarraitu

## 2015ean hasitako ekintza adierazgarri batzuk:

1.3.2 Ekintza-planetik eratorritako hirigintza arloko udal-jarduerak garatzeko beharrezkoak diren laguntza-mekanismoak bultzatu (koordinazioa gauzatzeko bulegoa, irizpideen idazketa, diru-laguntzak, ..)

5.1.4 Jarduera-lizentziak emateari buruzko prestakuntza eta elkarguneak ahalbidetzea

8.2.3 Langabezian dauden emakumeei zuzendutako enplegu-aukea berriak sustatazea

9.3.4 Produktuen udal-erosketen zein hornitzaileen aukeraketaren gaian eta baita herri-administrazioaren ingurumen txertaketan ere, udaletako ordezkari politikoak eta teknikariak udal mailako politiko egokiak abiarazten laguntzea

# Ildo estrategikoen araberako ezarpen-maila



# 2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

**Eskualdeko ingurumen kalitatearen ezagutza handitzea, bere hobekuntzan aurrera egitea eta arriskuak murriztea:** %7ko ezarpen-maila lortu du.

Lerro estrategiko hau honako helburu zehatzez osatuta dago:

5.1. Eskualdeko ingurumen-kalitateari buruzko ezagutza hobetzea eta ingurumen-kalitatearen hobekuntzarako neurriak ezartzea.

Helburu honen baitan 4 ekintza barneratzen dira eta horietatik 3 aurreikusita eta 1 hasita zeuden 2015 urtearen amaieran.

5.2. Jarduera industrialetik eratorritako kutsaduraren prebentzioa

Helburu hau 3 ekintzez osatuta dago (horietako 2 hasi gabe zeuden 2015 urte amaieran eta 1 hasita).

# Partaidetza TA21en baitan

PARTE-HARTZE MEKANISMO NAGUSIA PLAN ESTRATEGIKOAREN AHOLKU-KONTSEILUA ETA GAIKAKO PARTE-HARTZE SAIOAK DIRA

LANDU DIREN GAI NAGUSIAK: PLAN ESTRATEGIKOAREN EZARPEN-MAILA, ENERGIA, ESKOLAKO AGENDA 21, ENPLEGUA, ETAB.

PARTE-HARTZEN DUTEN ERAGILEAK: ARDURADUN POLITIKO ETA TEKNIKOAK, ENPRESAK, MERKATARIAK, ELKARTEAK, ETAB.

PLAN ESTRATEGIKOAREN AHOLKU-KONTSEILUAREN 2 BILERA

PLAN ESTRATEGIKOAREN AHOLKU-KONTSEILUKO BILERETAN 40 BAT PARTAIDE (GEHIENAK, GIZONEZKOAK)

# Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (**www.debegesa.eus** web gunean eskuragarri)

